

EUSKARAREN SILABA: EGITURA ETA HISTORIA

Tesiaren egilea: Oroitz Jauregi Nazabal

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Miren Lourdes Oñederra katedraduna eta Joseba Lakarra katedraduna

Tesiaren laburpena:

Ikerlan honetan euskararen silaba-egituraren nolakotasuna eta sortze-lehentasunak azalduta, erakutsi da euskaraz gertatzen diren bilakabide fonologiko ugariren arrazoia silaba-egitura unitatetzat gordetzea dela. Silaba, egitura erritmikoan funtsezko elementu denez, erritmoa oinarritzat hartzen duen tipologia holistikoaren bidez euskara modernoaren hizkuntz tipoaren ezaugarriak erakutsi dira: hizkuntza silaba-aldikoa, eranslea, sistema fonologiko aski naturala duena, etab.

Ikerketa-lanean aipatu bezala, erritmoaren azterketaren bidez euskararen berreraiketa-proposamenei ekarpenak egin dakizkieke, eta kasu honetan hitz azentu aldaketaren bidez Lakarrak (2005, 2006, besteren artean) proposatutako hizkuntz tipo aldaketarako oinarriak eskaini dira.

Egungo eta berreraikitako euskararen azalpenen ondoan, euskararen silaba egituraren bi tresna bidezko azterketa burutu dira: bata akustikoa; egungo hizkera arduragabearen oinarritutako azterketa honetan silaba-egiturak neurtu dira eta ondoren azterketa estatistikoak eskaini dira. Bestea informatikoa; testu idatzietan, diakronia ardatz hartuta, silaba-egituren maiztasunak neurtu dira.

Ikerketan, silabaren azterketak euskararen ezagutza sakondu eta hedatzea darraren neurrian, silabak azterketa linguistikoan, eta batez ere, fonologikoan duen garrantzia azpimarratu da.

HAUR EUSKALDUNAREN NORTASUN KULTURALA

Tesiaren egilea: Fernando Olabarrieta Artetxe

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapen Saila

Tesi-zuzendaria: Pedro Hernández Hernández

Tesiaren laburpena:

Molde kognitibo-afektiboen edo *buru-moldeen* teoria (Hernández, 2002) da lan honen oinarri teorikoa. Psikologia konduktualak arlo zientifikoari egindako ekarpenei esker, badakigu pertsonen jokabide-ohitura jakin batzuk dituztela. Hala ere, giza adimenak badu barne-ohiturak edo jokabideak eraikitze gaitasuna ere, munduari eta bizitzari buruz duen pentsamoldearen bidez. Zehazki, estrategia kognitibo-emozionalak dira horiek, errealitatea ikusteko eta interpretatzeko ditugun moduak. Estrategia horiek ohitura mental bihurtzen dira azkenean, edo pentsamolde-eredu, Hernándezek (2002) "buru-molde" deritzenak, azkenean norberak bere inguruko mundua hautemateko, interpretatzeko eta horri aurre egiteko duen modu berezia moldatzen eta itxuratzen duten ohiturak direlako.

Atal enpirikoan, kultur talde desberdinetako 9 eta 12 urteko haurren molde kognitibo-afektiboak konparatzen dira: probak euskaraz egin dituzten haurrak eta euren gurasoak euskaldunak eta euskal hiztunak direnak (1), probak gaztelaniaz eta guraso euskaldunak eta euskal hiztunak (2), aita euskalduna eta ama erdalduna.(3), ama euskalduna eta aita erdalduna (4), guraso etorkinak euskaraz ez dakitenak eta haurrak Euskal Herrian jaiotak (5), guraso etorkinak, Euskal Herrian bizi direnak eta haurrak Euskal Herrian ez jaiotak (6), Kantabriako haurrak (7) eta Kanarietakoak (8).

Horretarako bi tresna erabili dira:

- *TAGINASTE*: ikerketarako bereziki diseinatu eta landutako tresna proiektibo eta irekia da. Arkatz eta paperez egin beharreko proba bat da, eta taldeka nahiz banaka aplikatu daiteke. Berez, probak 54 item ditu; horietako 43 irekiak dira eta beste 11 item itxiak dira.
- *TAMAI* (Haurren Adaptazioari Buruzko Autoebaluazioko Test Multifaktoriala. Hernández, 1983, 1990, 2001): diagnostikorako tresna soila da, barematua eta merkatuan eskuragarria, eta hezigaiek beren buruaz, gizarte-harremenez, eskola- eta familia-esparruez duten iritziaren, jarreraren eta portaeraren eta gurasoen hezkuntza-jarreraz duten iritziaren gaineko datuak biltzen ditu.

Metodologia kualitatiboz egindako lan honek erakusten du, nor bere kulturaldearen arabera, errealitatea ulertzeko eta bere aurrean erreakzionatzeko tankera kognitibo-afektibo desberdinak dituela. Emaitzok laburtzearen, honako tipologia kulturala atera da, talde bakoitzaren ezaugarriak laburbiltzen dituena:

1. TALDEA (HELDUTASUN NABARIA): talde hau definitzen duten ezaugarriak honako hauek dira: errealista, positiboa, aktiboa, autokontrolatua, eta familiara, eskolara eta gizartera moldatua.

2. TALDEA (MOLDATU KRITIKOA): autokontrolatua, beldurrik gabea, disnomikoa, moldatua, familiararen hezkuntza-estiloaren hautemate permisiboa eta irakaslearekiko abertsioa duena.

3. TALDEA (AITAREN ERAGINPEKOA, EMOZIOEN GAINEKO KONTROLA): pentsamendu neutroa, "ni" fisiko positiboa, erreakzio normatibizatua, beste munduak zirrara eragiten dio, familia-asegabetasun apala eta aitaren laguntza pertsonalizatzailea.

4. TALDEA (INADAPTAZIO ARINA, EZKORTASUNA ETA ARDURAGABEKERIA): "ni"ari eta besteei buruzko omisioa, konponbideak bilatzeko jarrera aktiboa, gizarteari buruzko balioespen negatiboa, emozioen gaineko kontrol urria eta inadaptazioaren eta oldarkortasun sozialaren autohautematea.

5. TALDEA (EZ-MOLDATUA): "ni"ari eta besteei buruzko omisioa, jarrera eraikitzaile eta etikorako joera txikiagoa, gizartearen gaineko balioespen negatiboa, zibilizazioari buruzko ikuspegi eszeptikoa, emozioen gaineko kontrol urria, pentsamendu analitikoa, kognipunitiboa, disnomikoa, eskola-inadaptazioa, familia-asegabetasuna, laguntza pertsonalizatzaile urria eta murrizketa handia.

6. TALDEA (NEUTROA, LAUSOA, ZEHAZTUGABEA, ANBIBALENTEA): pasiboa, konponbideak bilatzeko joerarik ez duena, errealitatean inplikaturik, pentsamendu arautzailea eta inadaptazio-faktorerik eza.

7. TALDEA (AUTOKONTROLATUA, ERREPRIMITUA, ANBIBALENTEA): pentsamendu zehaztua, "ni" fisiko positiboa, arrazionala, emozioak kontrolatzen dituena, desoreka soziala hautematen duena, disnomikoa, permisibismo apalekoa eta murrizketa nabaririkoa.

8. TALDEA (DEPRIMITUA-AUTOPUNITIBOA): etikoa, aktiboa, bitxia, autokontrol apalekoa, pentsamendu ez oso analitikokoa, depresibo-intrapunitiboa, eskolara moldatua, disnomia urrikoa eta murrizketa sozial altukoa.

Azkenik, ikerketaren helburua izan da (eta hori da ikertzailearen aurrera begirako asmoa ere) nortasun kulturalaren prozesuetan eta aspektu kualitatiboetan sakontzea, eta, era berean, kulturen arteko errealitatea hobetzeko hezkuntza-programak eratzeko aurrera pausoa ematea.

ARRISKUAREN ERAKETA DINAMIKAK: ARRISKUAK GOBERNATZEKO PROPOSAMEN KONPOSIZIONALA

Tesiaren egilea: Hannot Rodríguez Zabaleta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Logika eta Zientziaren Filosofia

Tesi-zuzendaria: Andoni Ibarra Unzueta

Tesiaren laburpena:

Arriskuaren ulermena eta trataera, hala eremu teorikoan nola eremu publiko zabalagoan, bikoiztasun batek ezaugarritzen ditu: arriskua zera “emantzat” edo “eraikitzat” kontsideratzeak. Arriskua aspektu objektibo eta subjektiboetan disoziatzeko joera horrek segurtasunaren eraketa sozio-instituzionalaren eragin-kortasuna eta bideragarritasuna eragozten ditu, ez baita arriskuaren izaera *eratuaren* berri emateko gai.

Hau da: arriskuaren edo segurtasunaren gobernaketa-saioak (baita izaera publikoko osagai deliberatiboak barneratzen dituzten horiek ere) aspektu objektiboen eta subjektiboen arteko *ad hoc* motako adekuazio gisa planteatzen dira, eta hori dela-eta, ez zaio ekiten osagai objektiboak eta subjektiboak *berezkoak* dituen arrisku *eratuaren* kudeaketa litzatekeenari. Aspektu objektiboen eta subjektiboen arteko zedarriztapena onartzen ez duen arrisku anitzak, hots, eraturia denak, bestelako gobernaketa mota bat eskatzen du.

Zentzu horretan, gurean, arriskuaren gobernaketa-proposamen berritzailea eskaintzera gatoz, hain zuzen ere arriskuaren kontzeptu berri batean (hau da, *anitzean*) oinarritzera datorrena. Kontzeptualki eluzidatutako arriskuaren kontzeptu berri horrek arriskua eratzen datozen era askotariko osagaien mobilizazioa eta kudeaketa exijitzen du. Hau da, arriskuaren gobernaketa hemen “arrisku *gisako* gobernaketa” legez ulertzen da, gobernaketa ez baita emanda legokeen arrisku objektibo baten gain bideratutako ariketa kudeatzaile gisa aurkezten (hots: “arriskuaren gobernaketa”), hain zuzen ere arriskua osatzen duten osagaien aniztasunari —eta segurtasuna *eratzearren*— bete-betean heldu behar dion ariketa den heinean.

Horrenbestez, arriskuaren gobernaketaren osagai diren aspektu subjektiboak ez ditugu objektiboki emantzat legokeen arrisku bati egiten zaion gehigarri legez tratatzen, arriskua edo segurtasuna modu eraginkorrean bideratzeko ezinbestekoak liratekeen zera gisa baizik. Izan ere, arriskuaren gobernaketarako gure *proposamen konposizionalak* segurtasunaren eraketa aniztetik ekiten dio arriskuaren gobernaketak (hau da, eraketak) diseinatzeari, eta ez mugimendu zilegiztatzaile baten baitan, segurtasuna sozio-teknikoki onargarriak liratekeen moduetan eratzeko legokeen aukera onena (bakarra, egia esan) delako baino.

Arriskuaren gobernaketarako proposamen konposizionala Gipuzkoarako proposatutako erraustegi proiektuaren arriskuen inguruan sortutako kontrobertsia sozio-publikoaren kasu zehatzaren azterketara bideratzen dugu azkenik, arriskuaren trataerarako egin proposamenak gure gizartea arduratzen duen segurtasunaren gobernaketa adibide edo saiakera errealak modu egokiagoan ulertu eta bideratzeko baliagarria izan daitekeelako froga gisa.

